



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

7. Alea 1997ko Martxo



INSUMISIOA ESKORIATZAN



Korrika

Emakumeen
eguna

Euskal
selekzioak

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa.

Kolaboratzaileak: Karmelo Oñate, Ander Zabala, Iñaki Agiriano

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1700 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

GARBIÑE URIBE BERISTAIN
Dendaria eta mendizalea

1-Noiztik zaude K.D.E.-n?

Orain dela 4 urte hasi nintzen.

2-Zenbat federatu daude Eskoriatzan?

Oraindik 95 baina ekainean Almenetik jende asko federatzen da eta pasa den urtean 200 mendizale federatu ziren guztira.

3-Jende asko joaten da mendi irteeretan?

Bai; sky irteeretan gazte gehiago joaten dira eta mendi irteeretan, berriz, jende nausiagoa.

4-Zein da zure mendizalerik gogokoena?

Ni, neu.

5-Badaukazu harremanik beste mendizale elkarteekin?

Bai, oraintxe bertan inguruko taldeekin mendi sokorrismo ikastaro batetan sartuta gaude.

6-Dendan ze erosgai berri daukazu?

Jalea real katarro eta griperako, pisu kontrolatuko dietak ,

7-Zer etortzen da gehiago , emakumezkoak edo gizonezkoak?

Emakumeak askoz gehiago.

8-Bakarrik eramaten duzu denda?

Normalean bai baina batzutan alabak laguntzen nau.

9-Mendian eta dendan lan egiteaz gain , zertan erabiltzen duzu zure denbora?

Kirola egiten dut eta etxea eramaten dut (ez da gutxi).

10-Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Dena kirolari gehiago begiratuta planteatu eta zerbait egin nahi duenari trabarik ez jarri.

11-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?

Orrialde gutxi baina bestela ondo.



Cuenta Joven
 de Caja Laboral
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutzaren
 Kontu Gaztea.
 Zerbitzuetan
 osatuena.**


CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA




LENIZ
 ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

10. KORRIKA

EUSKAL HERRIAN KORRIKA

Domekan bukatu da Bilbon aurtengo Korrika. Bederatzi egunetan zehar Euskal Herria zeharkatu du euskararen alde, eta joan zen astelehenean, martxoaren 17an pasatu zen Eskoriatzatik. Eguraldi ona lagun, arratsaldeko 5etan Almen inguruan eman genion harrera, eta 7 kilometrotan testigua eskuz esku ibili zen gelditu barik, marulandako "txixelekun" gatzagarren eskuetan utzi arte.

Ordu aldetik aurreratuta etorri zen Korrika (5 bat minutu), eta hori zela eta, batek baino gehiagok ezin izan zuen jarraitu. Lehenxego gatzetxoek euren korrika txikia egin zuten eta bukaeran, gorputzak indarberriketako, plazan guztiontzako txistorra jana egon zen, txistulari eta trikitilarien doinuek lagunduta.

Herrian zehar korrikarekin jende ugari bildu bazen, herritik kanpora, Gatzagara bitartean ere orain 4 urte baino gehiago ibili zen, orduak ere lagunko zuen. Orokorrean beraz oso ondo joan zela esan besterik ez.

Hurrengoan ere ez dadila Eskoriatzara etorri barik gelditu, eta egingo diogu horrelako harrera.



Eskoriatzatan erositako kilometroak

Udalak	1
Luis Eceiza ikastetxeak	1/2
L.E. Guraso Elkartek	1/2
Almenek	1/2
Axtrokik	1/2
Museo Eskolak	1/2
Irakasle Eskolako ikasleek	1
Irakasle Eskolako irakasleek	1
Jose Arana ikastolak	1/3
Amuskak	1/3
Jubilatuek	1/3
Herri Batasunak	1
(Udal Euskaltegiak Aretxabaletan erosi du)	



Euskal Herria korrika!



A & B
aholkulariak

LAGUN-ARO ASEGURUAK

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

ALDETEC



Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7 - bajo

INSUMISIOA ETA ESKORIATZA

Orain dela aste batzuk Insumioaren 2. Eguna ospatu zen Eskoriatzan. Aurreko urtean lehen aldiz ospatzerakoan ondo irten zela eta, egun honen ospakizunarekin aurrera jarraitzea erabaki zuen Eskoriatzako Talde Antimilitaristak.

Gaur egun borroka antimilitarista aztertzerakoan, kode penal berria hartzen da erreferentzizat. Gobernuak, insumisioaren indarrak oharturik aurpegi garbitze bat erabaki zuen; horrela, gartzela kondenak jeitsi eta beste mota batetako zigorrak inposatzeari ekin zion. Argi dagoena zera da: antimilitarismoaren aurka erabiltzen jarraituko duten bidea errepresioa da, modu batetara edo bestera. Azkenengo erabiltzen ari den zigor erak, inabilitazioak, egoera garratzean uzten du berau pairatzen duen gaztea, zibilki hilik: sozialki pertsona bezala dituen eskubide gehienak desagertu egiten dira (ez ordea bere betebeharrak): ezin du ikasketak aurrera eraman ahal izateko bekarik jaso, ezin du inolako instituzio publikotatik diru edo beste laguntzarik jaso, ezin da enplegu publikoetara aurkeztu, oposizioetan ez du aukerarik, ...

Zenbait udaletxetan (eta beste instituzioren batzutan) egoera honen aurkako erabakiak hartu dira, berauek ofertatzen dituzten enpleguetan inabilitatuei edonori beste aukera ematea onartuaz. Momenturarte Eskoriatzako Udaletxean ez da honi buruzko moziorik proposatu, baina denbora gutxi barru espero da. Orain urte batzuk aurkeztutako mozioan Udaletxeak insumisoei beren elkartasuna adieraztea erabaki zuen, nahiz eta gero mozio horretako puntu gehienei ez dien inolako kasurik egin.

Gure herrian, Eskoriatzan, gaur egun 40tik gora insumiso daude Eskoriatzako talde antimilitaristak dituen datuen arauera. Hauetakoa asko jadanik epaituak izan dira, sententzia desberdinak jasoaz: lehenengo epaituetakoen artean 2 urte, 4 hilabete eta egun bat zen ohizkoena; gero hamazortzi hilabete eta gaur egun, kode penal berriaz epaituak direnak 6 hilabeteko gartzela eta hamar urteko inhabilitazio zigorra jasotzen dute.

Orain arte ez da inor kartzelara joan gure herrian bere insumiso izaeragatik, nahiz eta bi gazte atxilotuak izan diren epaiketetara ez agertzeagatik. Kasu hauetan, zenbait ordu atxilotuta eman ondoren, epailearengana eramanak izan ziren, ondoren aske geratuaz.



Insumiso eguneko zerbitzariak

IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

FRANCIS BODEGA

Muñarrate ardoa

Gaztañadui, 21 behea

Pub CIPRI'S

Behin etorri
Eta baietz berriz...

Gaur egun talde antimilitaristak ostegunetan arratsaldeko zazpiretan egiten ditu bere bilerak. Soldaduzkaren aurrean har daitezkeen bide desberdinetaz informatzeaz gain, kontzientzi antimilitarista bat hedatzea du helburutzat. Horretarako, urtero urtero aktibitate desberdinak antolatu ohi ditu: teatrua, martxak, txarлак, insumiso eguna eta abar. Aurtengo asmoen artean, beste urte batzuetan eginetakoez gain, zera legoke: aste antimilitarista bat (pelikula, txarla, debate eta abarrekin); txoznen inguruan jaietan zerbait antolatzea, eta buruan darabilten beste ideia bat, akanpada antimilitarista. Azken hau beharbada hurrengo urterarte ez dutela aurrera eraman ahal izango aitortzen dute, fetxa gutxi bait dago libre.

Edonork interesa badauka, bai laster soldaduzkara joan beharra tokatuko zaiolako bai beste edozein arrazoigatik, ostegunetan 7retan talde antimilitaristaren bileretera joatea du (San Pedro auzoa 1, beheko solairua ezkerrean) edo bestela taldeko edonorekin kontaktuan jarri.



Bertsolariak insumiso egunean



Nazio gehienek bere presupuestoaren zati handi bat gastu militarretan uzten dute



Eskoriatzako talde antimilitarista
San Pedro 1, behea
20540 Eskoriatza



Oraindik geratzen dira arazoak ekiditzeagatik soldaduzkara joaten diren gazteak.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

ESKO Sport



txandalak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futbola
txirrindua

Inxaurtxueta 5
20540 Eskoriatza
Tel. 71 52 96

HEMEN

ZURE

PUBLIZITATEA

TOKI EDER

Taberna
Tfnoa.: 715438

BOKADILO, AFARI eta
MERIENDAK

HERRIKO BERRIAK

- Leintz Gatzagan erabakiko da apirilaren 11n, aurtengo "Euskadiko 37. Txirrindulari Itzulera"-n nor izango den txapelduna. Jalabert, Zulle, Dominguez, Rijs eta beste txirrindulari asko ibiliko dira lehian, Arrasatetik Gatzagaraino bidea egin beharreko azken etapan. 12 kilometro t'erdi izango dira eta erlojuz kontra bete beharko dira. Gainera %14ko aldatza dauko eta horrek interesgarriagoak egingo ditu azken kilometroak. Egun berezi horretarako miloi bat jarri du Leintz Gatzagako Udalak. Eugenio Otxoa, alkatearen esanetan Leintz Gatzagak obligaziño bikoitza dauka: alde batetik, Dorletako Ama, txirrindularien zaindaria dago bertan eta, bestetik, herria kanpokoei hobeto ezagutarazteko aukera paregabea da.




- Gure herriko erdialdea guztiz itxuraldatura geratu zaigu Itarte etxean egindako obren ondoren. Hala ere, ez da estetika izan lan hauek egitearen arrazoia, seguridadea baizik. Orain bistan gelditu diren eliza ondoko tuneletan, sedimentuak sortzen ari ziren eta honek uholde arriskua sor zezakeen; beraz, Itarteko lorategia bota, erreka dragatu eta tunel horiek libratzea erabaki zuen udalak. Honen guztiaren kostuari Diputazioak emandako dirulaguntza bati esker egingo zaio aurre.

Bestalde, Deba ibaia berreskuratzeko planak ere aurrera doaz, eta uztaila aldean hasiko dira Eskoriatzako ur zikinak bilduko dituen kolektoreen lanak. Kolektore honek gure herriko eta Deba Garaiko ur zikinak San Prudentzioko ur araztegiara (depuradoretara) eramango dituzte bertan tratatu ditzaten. Agian gertu dago Deba ibaia berriz garbi ikusteko ametsa egia bihurtzeko ordua.

- Areto futbola gustoko duten eskoriatzarrek pozik egoteko arrazoiak dituzue! Eskoriatzara nor etorriko eta Euskadiko Areto Futbol Selektzioak ditugu egun hauetan Intxaurtxuetako kantxetan. Bi talde ari dira entrenatzen bertan, emakumezkoen 23 urte azpiko selektzioa eta gizonezkoen selektzio absolutoa. Talde honetako partaideak estatuko ligako punta-puntako taldeetan jokatzen dute eta seriotasun handiaz aritzen dira entrenatzen. Neskak gaueko zortziretatik bederatziretara aritzen dira eta mutilak bederatziretatik hamarretara.



- Martxoak 8an Emakumeen Eguna ospatzen zen. Amuskakoak ekursioan joan ziren bitartean, gure herriko neska gazteek mendira ibialdi bat eta ostean bazkari popular bat antolatu zuten. Giro ona izan zen nagusi bai mendi martxan baita bazkarian ere.



Nesken bazkari popularra

AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094


KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK

Argitaralpen honen edizioiko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

fundazioa
fundación



O R A I N D E L A



26 bat urte izango dira argazki hau atera zela. Argazkian ageri direnak Jesus Mª Oianguren (eskuinean) eta Jesun Mª Uribetxebarria (ezkerrean) dira.

Lehenak kontatu digunez, aurrean dituzten perretxikoak berorrek topatu ei zituen Aitzorrotz eta Uxar inguruan zegoen haretx anpor batean. Lau bat kilo bai. Saltsa perretxiko modukoak ei ziren, baina haundiak. Jakitunen batek jateko txarrak zirela esan ziela baina lagunarteko bazkari ona egin arren ez ei zen inor hil; batzuk jakitunak izan, baina hauek jatunak...

A G E N D A

G A Z T E A G E N D A

- "Ramón Areces" Fundazioak, natur zientzien arloan atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentruetan ikasketak osatzeko beka deialdia egin du. Epea: apirilak 25.
- "La Caixa" Fundazioak, Alemanian 97-98 ikasturtean graduatu-ondoko ikasketak osatzeko beka antolatu ditu. Epea: apirilak 30.
- "Grupo Endesa" k, arte plastikoetarako beka antolatu ditu, arte mota hau lantzen duten artisten lanak sarituko ditu. Epea: ekainak 30.

L A N A K

- Bilboko Udalak, etxez etxeko laguntzaren zerbitzuko koordinatzaileak 3 lanpostu betetzeko deialdia egin du. Epea EBOan argitaratuko da.

L E H I A K E T A K

- Jaizkibelgo Igoea iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: apirilak 5.
- "Gaztemaniak" MAKETA lehiaketa, Gipuzkoako pop eta rock musika taldeei zuzendua. Aurkeratutako lanekin CD bat grabatuko da. Epea: apirilak 11.

G A Z T E E N T Z A K O I K A S T A R O A K

- IRRATI TAILERRAK : 2 aukera: irrati kontrola edo erredakzio eta lokuzio tailerra (irratsaioak egiteko). Apiriletik ekainera. Izen ematea: Arrasateko Gazte Bulegoan.
- AUTODEFENTSA: Apirilaren 8tik 24ra, astearte eta ostegunetan 5:30 etatik 8:00etara, Arrasateko Musakolako kiroldegian. Izena emateko deitu 794139 telefonora.

I N E M E K O I K A S T A R O A K

- Deba garai burutuko diren ikastaroak: lorazaintza, trokelgintza, CNC tornoen programazioa, egiaztatzaile mekanikoa, gestiorako aplikazio informatikoak, ordenadoreen komunikazio sare lokaletan, errepide-garraioto teknikoak, atzerriko merkataritza, igeltsu apaintzailea, geriatría laguntzailea, automatismoak eta industri prozesu elektrikoak, MAG soldadura erdiautomatikoa. Informazio gehiago Arrasateko Gazte Bulegoan.

H E M E N

Z U R E

P U B L I Z I T A T E A

E S T I
E S T E T I K A
Z E N T R U AA r a n a 1 4 - 1 º
T f : 7 1 4 3 7 0

T O K I A L A I

T a b e r n a

T f n o a . : 7 1 4 7 2 9

K A R A J I L O E T A N
E S P E Z I A L I Z A T U A

C E N T R O Ó P T I C O

E S K O R I A T Z A

E d u a r d o G o r o s a r r i
P l a z a , 1 b a j o
T f 7 1 5 2 8 2



Aitzorrotzko parkea




Herriko plaza



San Viator



Zarimutzeko eliza



Eskoriatzako eremu adierazgarriak
Museoa, Isasiko sukaldea, Axtrokiko ontziak, Alberga zaharra



Apotzako kanposantua

VILLAR APAINDEGIA

Tfnoa.: 715042.